

2010-07-26an EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO  
BILKURA

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL  
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 26  
-07-2010

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Pedro Lasagabaster Armendáriz  
Zinegotziak

Dorleta Leceta Uribetxebarria.  
Edorta Barandiaran GARCÍA  
Ander Agiriano Errasti  
Begoña Eraña Lazkano  
Maidor Otamendi Tolosa  
Carmelo Leceta Abásolo  
Juan Luis Merino Sanabria  
Ignacio Pierrugeus Barberán  
Unai Salaberria Múgica

#### Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamarreko uztailaren hogeitaseian, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Pedro Lasagabaster Armendariz alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, ez ohiko bilkuran, gainerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da bertan izan Urrutia jauna.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho y treinta minutos del día veintiséis de julio de dos mil diez, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Pedro Lasagabaster Armendariz, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten el Sr. Urrutia.



### **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

Ez dago.

### **2.- ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEKO ZINEGOTZIAK KARGUA HARTZEA.**

Udalbatzarrari jakinarazi zaio hauteskunde-batzorde zentralak 2010eko uztailaren 15ean zinegotzi egiaztagiria eman ziola UNAI SALABERRIA MUGICA jaunari, eta honek ondare ondasunen, balizko bateraezintasun kausen eta diru sarrerak eman ditzaketen jardueren aitortpena egin duela dagokion interesen erregistroan inskriba daitezen Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 75. artikuluan aurreikusita bezala. Eta horrela, zinegotzi kargua hartzeko legezko tramiteak beteta, Udalbatzarrak Unai Salaberria Mugicari bere kargua eman dio eta ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE) udal taldeari atxikita gelditzen da.

### **3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.**

Batzorde infomatzaileen derrigorrezko diktamenik ez dagoenez batzordeetan quorumik egon ez delako, Udalbatzarrak aho batez berretsi du ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea:

*4.- Hainbat erakundeetarako udal ordezkariak izendatzea.*

*7.- Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2010ean egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko deialdiaren eta oinarrien proposamena.*

*8.- 0-3 haur eskolako udal zerbitzurako 2010-2011 ikasturterako baimendutako prezioak onartzea.*

*9.- GARABIDEekin egindako lankidetzaren hitzarmena luzatzea.*

### **4.- HAINBAT ERAKUNDEETARAKO UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

Egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, Pierrugues jaunaren abstentzioarekin eta gainontzeko udal batzarkideen aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

Unai Salaberria Mugica jauna udal ordezkari izendatzea ondorengo erakundeetan:

- DEBA GOIENENKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA
- JAKION

Salaberria jaunak ez du parte hartu bozketan bera delako Alkateak proposatutako hautagaia.

### **5.- DORLETA 9-KO BIZILAGUNEK EGINDAKO HOBARI ESKAERA IGOGAILUA JARTZEKO EMANDAKO LIZENTZIAK SORTUTAKO EIOZA DELA-ETA.**



Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Dorleta 9 zenbakiko eraikinean igogailua jartzeko emandako baimenak sortutako EIOZaren % 90eko hobaria egitea, obrek betetzen baitituzte hobaria jasotzeko beharrezko baldintza hauek:

4. Igogailua eraikinaren barnean jarri da.
5. Ez du eraginik guneko publikoetan.
6. Igogailuaren jaitsiera lekua eraikineko elementu komunetan dago eta ez etxebizitzaren leku partikularretan.

## **6.- ESKOLA AGENDA 21 DELA-ETA ESKORIATZAKO IKASTETXEETAKO IKASLEEK EGINDAKO ESKAEREN GAINEKO ERABAKIA.**

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalak ondorengo erabakiak hartu ditu Eskoriatzako ikastetxeetako ikasleek Eskola Agenda 21 programaren barruan egindako eskaeren gainean.

Lehen hezkuntzako lehenengo zikloa. Udalari egindako eskaera:

- *Festa bat antolatzea herrian, herrialde ezberdinetako ohiturak kalera ateratzeko, denok jakiteko eta aberasteko*

Jakin arazten da gaur egun gai hori Garabiderek sinatutako hitzarmenaren bidez gauzatzen ari dela.

- *Harrera protokoloak hizkuntza gehiagotara itzultzea*

Lehentasunezko gaitzat ez bada jotzen ere, protokolo horretan ingelera eta arabiera sartzeko aukera aztertuko da.

Lehen hezkuntzako bigarren zikloa. Udalari egindako eskaera:

- *Lur publikoa langabetuei uztea lantzeko, nahikoa ez bada, lur pribatua alokatzea.*

Udalak ez du horretarako lurrik. Hala ere, agroaldea bat martxan jartzeko aukera aztertzen ari da.

- *Ikastetxeetan eta jatetxeetan ere, Eskoriatzako produktuen berri ematea (non ekoiztu eta non saltzen diren)*

Produktu mota horiek saltzen diren Eskoriatzako dendetan bertan ematen da jatorriaren gaineko informazioa.



- *Baserritarrei langabetuak kontratatu ditzaten laguntzak ematea*

Momentuz Udalak ez du behar hori antzeman baserritarrengan, eta beraz, ez da aztertu diru laguntzarik ematerik kontratazio horietarako.

- *Ortua lantzeko ikastaroak antolatzea*

Udalak konpromisoa hartzen du datorren urtean nekazaritza ekologikoko ikastaro bat antolatzeko.

Lehen hezkuntzako hirugarren zikloa. Udalari egindako eskaera:

- *Gutun bat idaztea Goienkarira, iragarkietan, lan eskaintzetan “neska behar da” idatzi beharrean, “pertsona behar da” jar dezaten*

Udalak uste du iragarkietako testua iragarkia jartzen duen pertsonak erabakitzen duela, eta ez Udalak.

- *Toki guztiak elbarrientzako egokitzea*

Udalak badu irisgarritasun plan bat, ahal duen neurrian betetzen ari dena.

- *Lan aukera berdinak ematea denei (gizonezko, emakumezko, elbarrituak...) baita baldintza berdinak ere (soldata...)*

Udal honek aukera berak eskaintzen die gizon zein emakumeei, minusbaliatuei eta abar, eta ez du inolako diskriminaziorik egiten.

- *Emakumeen eskubideen alde lan egitea. Elbarrituei laguntza ematea*

Gaur egun Udalak emakumearen alde lan egiten du. Ordenantza fiskaletan minusbaliatuentzako hainbat hobari jasotzen dira.

Bigarren hezkuntzako lehen zikloa. Udalari egindako eskaera:

- *Enpresa solidarioak zabaltzeko diru laguntzak ematea.*

Udalak aurreikusita dauka enplegua sustatzeko laguntzak emateko deialdia egitea laster. Horretarako, deialdia arautuko duen baldintza agiria prestatuko da. Udalak konpromisoa hartzen du puntuazio handiagoa emateko enpresa solidarioei.

- *Eta daudenen berri ematea, adibidez Emausek egiten duen birziklatzen diren gauzen etxez etxeko bilketa*



Informazio hori Mankomunitatearen bitartez eman beharko da.

Bigarren hezkuntzako bigarren zikloa. Udalari egindako eskaera:

- *Gure eskaera ondokoa da: Garapen bidean dauden herriei aurrekontuaren %0,7a ematen zaiela ziurtatzea*

Gaur egun Udalak konpromisoa hartua du eskatutako % 0,7 hori modu progresiboan lortzeko.

**Kultura batzorde informatzaileko buru Barandiaran jauna oraindik iritsi ez denez, Alkate jaunak gai zerrendaren ordena aldatu du, kultura arloko gaiak Barandiaran jauna etortzen denerako utziz.**

#### **7.- KREDITUAK ALDATZEKO 10. ESPEDIENTEA.**

Aurreko ekitaldiko aurrekontuko gerakinak txertatuta ESKORIATZAKO UDALEKO 2010eko Aurrekontuan egindako kreditu aldaketa espedientea ikusi da.

HAZIENDA BATZORDE INFORMATZAILEAK egindako aldeko txostena eta onarpen proposamena eta espedientean egindako gainontzeko jarduerak ikusita, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** *Aurreko ekitaldiko aurrekontuko gerakinak Udal Aurrekontuari txertatuta egindako 10. zenbakidun kreditu aldaketa espedientea onartzea txertaketak eragina izan duen kapituluetakoko ondorengo laburpen honen arabera*



GASTUAK - GEHIKUNTZAK

Aurrekontu partida	1.1 Kontzeptua	1.2 Kredituak		
		1.3	Aldaketak	
1.0102.210.511.00.01	Mantenimendua: Bide publikoak.	39.371,05	15.509,62	54.880,67
1.0102.211.435.00.01	Mantenimendua: Etxeak eta lokalak.	1.500,00	1.700,00	3.200,00
1.0104.210.531.00.01	Mantenimendua: Elizatetako bideak.	30.000,00	10.000,00	40.000,00
1.0405.227.422.20.01	Garbitasuna: Luis Ezeiza.	24.870,53	2.500,00	27.370,53
1.0301.601.456.10.02	3.adinekoentzat parkea.	14.000,00	2.000,00	16.000,00
1.0101.601.433.00.08	Aranburuzabala kaleko farolak.	0,00	24.400,00	24.400,00
1.0201.833.129.00.02	Maileguak: Langileak	0,00	5.410,00	5.410,00
1.0201.933.010.00.01	Maileguen amortizazioa.	241.000,0	150.500,00	391.500,00
1.0104.601.531.00.04	Leteko argiteria publikoa	0	17.111,76	27.494,00
		10.382,24		
<b>GUZTIRA ...</b>		<b>361.123,82</b>	<b>229.131,38</b>	<b>590.255,20</b>



## DIRU SARRERAK- FINANTZIAZIOA

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen partidak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak / gastuetako bajak	Baliabidearen partziala
2.0201.870.000.00.01	Diruzaintzako gerakina:Kreditu gehigarriak finantzatzeko aplikazioa.	0,00	€ 229.131,38€
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		0,00	<b>229.131,38€</b>

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa bai Gastuetan bai Sarreretan.

**Hirugarrena.-** Era berean, aipatutako espedientea dela-eta idazkari-kontuhartzaileak egindako txostenaren berri eman da. Txosten horretan aurrekontu-egonkortasun helburua ez dela betetzen esaten da eta aipatzen da, hori horrela izanik ere, ez dela beharrezkoa ekonomia eta finantza planik onartzerik 2010eko aurrekontuaren kitapena egin arte, abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzen duen erregelamendua onartzen duen azaroaren 2ko 1463/2007 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **8.- 2009KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu batzorde bereziak 2009ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren, Telesko Udal Telebista fundazioaren eta Eskoriatzako Industrialdea elkarte publikoaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta Alkate erabakiz onartutako Udalaren eta Telesko fundazioaren aurrekontuen kitapenak ( hurrenez hurren 241 eta 5 zenbakidun erabakiak).

2010eko ekainaren 24an egindako bilkuran Kontu batzorde bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2010eko uztailaren 1ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (123 zenbakia) argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik jarri.

Aurrez esandako guztia oinarritzat hartuta, Kontu batzorde bereziak 2010eko uztailaren 22an emandako aldeko diktamenarekin, eta bertaratutako batzordekide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:



“2009ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2010eko ekainaren 24an egindako Kontuen batzorde berezian hasiera batean onartu ondoren, eta 2010eko uztailaren 1eko 123 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik jendaurrean egoteko epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

#### **9.- HAINBAT IKASTETXE ETA UDAL BULEGO GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUARI BURUZKO ERABAKIA.**

Udalbatzarraren 2006ko uztailaren 27ko erabakiz, HEMEN GARBIKETAK enpresari esleitu zitzaion Eskoriatzako Udaleetxearen jabezoko hainbat ikastetxe eta udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko kontratua.

Kontratu horren iraupena BI URTEKOA zen 2006ko irailaren 1etik kontatzen hasita, eta urtebeteko bi luzapen egiteko aukera zegoen, gehienez ere lau urte egin arte guztira. Horiek horrela, kontratuaren indarraldia datorren abuztuaren 31n amaitzen da.

Kontuan izanik beharrezkoa dela zerbitzua etenik gabe ematen jarraitzea, HEMEN GARBIKETAK enpresarekin batera erabaki da zerbitzua aldi baterako ematen jarraitzea, kontratazio espediente berria tramitatu eta erabaki arte.

Aurrez esandakoa kontuan hartuta, Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa:** HEMEN GARBIKETAK enpresari 2006ko uztailaren 27ko erabakiz hainbat ikastetxe eta udal eraikin garbitzeko zerbitzua emateko esleitutako kontratua amaitutzat jotzea 2010eko abuztuaren 31n.

**Bigarrena:** Kontratazio espediente berria tramitatzen den bitartean, eta prozedura ireki bidez kontratua berriz esleitzeko espedientea erabaki arte, zerbitzua HEMEN GARBIKETAK enpresari esleitzea indargabetutako kontratuaren baldintza beretan, honako aldaketa hauek izan ezik.

- Hileko prezioa: 11.699,78 euro (% 18ko BEZa barne)
- Luis Ezeiza Herri Eskolaren garbiketa: irailaren 1etik aurrera garbitasun eguneko 1,5 ordu gehituko da.
- Kiroldegiko garbiketa: irailaren 1etik aurrera 0,5 ordu gehituko da egunero astelehenetik ostiralera.

**19:00etan Edorta Barandiaran jauna etorri da bilkurara.**

#### **10.- CESPAS.A.-RI LOKALA ERRENTAN EMATEA.**

Zerbitzuak azpibatzailearen eskariz Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:





**Lehenengoa.** CESP A.S.A.-ri Intxaurtxuetako 26. eta 28. eskapeen artean dagoen udal jabegoko etxabea alokatzea Eskoriatzako Udalak esleitutako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko beharrezko langileak eta ekipamenduak gordetzeko biltegi bezala erabiltzeko. Bertan gordetako makineriak zein materialak ezingo du arriskuan jarri eraikinaren egonkortasuna edo segurtasuna.

**Bigarrena.** Errentamendua ondorengo baldintzen arabera egingo da:

1.- ALOKAIURAREN PREZIOA: errentamenduaren errenta 300 euro hileko (BEZ gabe) izango da. Kopuru hori zerbitzuaren hileko fakturaziotik kenduko da.

Ezarrিতako errenta kontratuaren indarraldiko urte bakoitzean eguneratuko da, eta azken bi irailen arteko urteko Gipuzkoako KPIa gehituko zaio.

Lehen urtean izan ezik, eguneratu beharreko kopurua metatutako errentaren arabera kalkulatu da beti.

2.- KONTRATUAREN INDARRALDIA: Kontratuaren indarraldia BI URTEKOA izango da, 2010eko abuztuaren 16tik kontatzen hasita, eta beste bi aldiz luzatu ahal izango da URTEBETEZ, betiere, alde biek berariaz horrela erabakitzen baldin badute hasierako epea amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago. Hala ere, iraupen osoa, luzapenak barne, ezingo da izan 4 urte baino handiagoa. Hori guzti hori, aurrez kontratua bertan behera gelditzen ez baldin bada CESP A.S.A.-k kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratuaren esleipendun izateari utzi diolako. Hori gertatzen baldin bada, kontratua bertan behera geldituko da esleitutako zerbitzua ematea lagatako egun berean.

3.- Kontratazio gastu guztiak eta ur, argi, telefono, argindar eta errentan emandako lokalean kontsumitu daitezkeen beste batzuen kostua errentariaren kontura eta kargura izango dira, eta baita lokalak dituen komunitate gastuak ere.

4.- Ur eta saneamendu eta zabor bilketaren gastuak CESP A.S.A.-ren kargura eta kontura izango dira. Derrigorrezkoa da gastu horien ordainketa helbideratzea.

5.- CESP A.S.A.-k ezingo du inolaz ere errentan hartutako etxabea laga edo azpierreant eman jabeak berariaz eta idatziz baimenik eman gabe.

6.- CESP A.S.A.-k aitortzen du etxabea egokitu gabe jaso duela. Hitzartutako helburuetarako egokitzeko egin beharreko egokitzapen eta hobekuntza lanak CESP A.S.A.-ren kontura eta kargura izango dira, eta kontratua amaitutakoan egindako obrak etxabearentzat geldituko dira, CESP A.S.A.-k ez duelarik izango eskubiderik horiengatik kalte-ordainik jasotzeko. CESP A.S.A.-ren kontura izango dira obra horiek egiteko lortu beharreko baimen guztiak lortzeko gestioak egin eta horiek ordaintzea. Lokala egokituta egon beharko da 2010eko urriaren 31rako.

CESP A.S.A.-k konpromisoa hartzen du 1.721 euro erabiltzera urtero lokala egokitzeko lanetan. Kontratuaren indarraldia amaitutakoan ez bada egiaztatzen inbertsio hori egin dela, CESP A.S.A.-k dirutan ordaindu beharko du inbertitu gabeko kopurua. Ordainketa hori errentatzat hartuko da.



7.- CESP A-k ezingo du inolako obrarik egin Udalaren berarizko baimenik gabe.

8.- CESP A S.A. izango da etxabearen erabileraren edo gozamenaren ondorioz sor daitezkeen gertaera edo ezbeharren erantzule zuzena zibil zein zigor arloan. Horretarako, erantzukizun zibileko aseguru a poliza kontratatu beharko du.

9.- CESP A S.A.-k ondo eta garbi zaindu beharko du etxabea, eguneroko erabilerak sortutako higadurak edo langileek sortutako kalteek eskatzen dituzten konponketak berak eta bere kontura eginez.

10.- Errentariak berariaz adierazten du udal ordenantzetan jasotakoa bete eta errespetatuko duela. Debekatuta dago edozein motako errotulu edo iragarki jartzea fatxadan edo eskapean.

11.- Aipatutako betebeharrak betetzen ez badira, Udalak eskubidea izango du errentamendu kontratuaren suntsiarazpena eragiteko Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoaren arabera.

12.- Udalak kontratua suntsiarazi ahal izango du honako arrazoiengatik:

1. Errentariak errenta edo bere gain hartutako edo berari dagokion edozein kopuru ez ordaintzeagatik.
2. Akordio honetan ezarritako errentariaren betebeharrak ez betetzeagatik, baita zati bat izanda ere.
3. Etxabea osorik edo horren zati bat lagatzeagatik edo azpierreentatzeagatik.
4. Errentariak kale garbiketa zerbitzua emateari uzteagatik.

**Hirugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari errentamendu kontratua sinatu dezan Udalaren izenean eta ordezkartzan.

### **11.- ESKORIATZAKO UDALERRIKO IRABAZI ASMORIK GABEKO KULTUR ELKARTEEI ETA TALDEEI 2010EAN EGITEKO EKINTZETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIAREN ETA OINARRIEN PROPOSAMENA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek dute Kultura batzorde informatzaileak emandako diktamenaren kopia bat.

Egindako proposamenaren arabera eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako udalerriko irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei eta taldeei 2010ean egiteko ekintzetarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.



**Bigarrena.-** Aipatutako oinarrietan aurreikusitako diru laguntzetarako deialdia egitea, eta horretarako oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.-** 2.100 euroko gastua onartzea 0401.481.451.10 01 partidaren kontura.

## **12.- 0-3 HAUR ESKOLAKO UDAL ZERBITZURAKO 2010-2011 IKASTURTERAKO BAIMENDUTAKO PREZIOAK ONARTZEA.**

Bozketa eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU.

**Lehenengoa.-** 0-3 Haur Eskola udal zerbitzuko emakidadunari baimena ematea erabiltzaileei kobratzen dizkien tarifak ondorengo prezioetara egokitzeko 2010-2011 ikasturtean:

	JORNADA OSOA	JORNADA MURRIZTUA
0-1 urte	211,03 €	158,28 €
1-2 urte	181,08 €	135,81 €
2-3 urte	71,19 €	

## **13.- GARABIDEREKIN EGINDAKO LANKIDETZA HITZARMENA LUZATZEA.**

2008ko apirilaren 8an egindako bilkuran Udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu zuen:

**Lehenengoa.-** *GARABIDE eta MUNDUKIDE fundazioei babes osoa ematea Mesedeetako Amaren Egoitzako patronoen batzarrari egiten dioten eskariaren inguruan, hain zuzen ere, Jose Arana kaleko 13.eko eraikina erabiltzen uzteko eskaria, "Herri eta Hizkuntzen arteko trukea" programako talde ikertzaileak bere egoitza bertan izan dezan.*

**Bigarrena.-** *Eskoriatzako Mesedeetako Amaren Egoitzako patronoen batzarrari erabaki honen berri ematea.*

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** GARABIDEREKIN berriz ere lankidetza hitzarmena sinatzea, 2008an sinatutako hitzarmenean alde bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak berresteko.

**Bigarrena.-** Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako hitzarmena Udalaren izenean eta ordezkaritzan sinatu dezan.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau GARABIDERi jakinaraztea.



#### **14.- TRAFIKOARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.**

2010eko maiatzaren 24an indarrean sartu zen Trafikoa eta bide-segurtasuneko Legearen testu artikulatua aldatzen zuen azaroaren 23ko 18/2009 Legea.

Udaltzaingoaren ekimenez, Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak indarrean dagoen Eskoriatzako Udalerrian trafiko arau-hausteak arautzen dituen Eskoriatzako udal ordenantzaren ondorengo aldaketak egitea proposatzen du ordenantza hori aipatutako 18/2009 Legea egokitzeko.

#### **PROPOSATUTAKO ALDAKETAK:**

- 3. artikuluko azken paragrafoa honela geldituko litzateke:  
Kapitulu honetan aipatutako atalen inguruko arau-hausteak arintzat joko dira **f** eta **m** atalak izan ezik, horiek arau-hauste larritzat joko baitira.
- 14. artikulua honela geldituko litzateke:  
**Zirkulazioa debekatzeko duen seinalea ez errespetatzea** arau-hauste larritzat joko da.
- 20. artikuluko azken lerroa honela geldituko litzateke:  
**Ibilgailuak ausarkeriaz gidatzea** (eta/edo axolagabekeriak desagertuko litzateke)
- 32. artikulua honela geldituko litzateke:  
Isuna ordaintzerakoan **% 70eko** beherapena egingo da isuna jarri ondorengo 15 egunetan ordaintzen baldin bada.
- 44. artikulua honela geldituko litzateke:  
Arau-hausteengatik honako isunak jarriko dira:
  - . Arau-hauste arinak: **50** euroko isuna.
  - . Arau-hauste larriak: **200** euroko isuna.
  - . Arau-hauste oso larriak: **500** euroko isuna.

Egin beharreko aldaketak bertaratutako guztiei jakinarazita, Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Indarrean dagoen trafikoari buruzko Udal ordenantzaren egiteko proposatutako aldaketak hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea datorren irailaren 30era arte, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego ordenantza hori behin betiko onartutzat joko da erabaki berririk hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikulua.

**19:05ean, eta gai zerrendako hurrengo gaia jorratu baino lehen, Otamendi andreak presako arrazoiengatik bilkura utzi du.**

#### **15.- ALKATEAK ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO ZINEGOTZI ARDURADUNAK MESEDETAKO AMAREN EGOITZAKO PATRONOEN JUNTAN EMANDAKO BOTOA BERRESTEA.**

Alkate jaunak hitza hartu eta laburpen gisa ondorengo aurrekarien berri eman du:



- Patronoen juntak ekainean egindako bilera batean administratzaileari kaleratze-gutuna ematea erabaki zen.
- Hemen diren zinegotzi gehienek ahoz baiezkoa eman bazioten ere kaleratze erabakiari, Udalbatzarkide diren patronatuko bi kideek kaleratze horri buruz beraiak emandako aldeko botoa udalbatzarrak berrestea gura dute.
- Kaleratze erabakia hartzeko arrazoi nagusia datuak ezkutatzea eta zenbait irregulartasun egitea izan da. Ondoren aipatzen dira egozten zaizkion horietako batzuk:

Kontabilitatean: Gutxienez azken 4 urteetan ez da egin egoitzaren kontabilitaterik, eta aholkularitza enpresa bat kontratatu behar izan da kontabilitatea eguneratzeko. Egoitzako egoera ekonomikoa zehatz-mehatz jakiteko asmoz, eta baita derrigorrezkoa delako ere, urte horietako auditoria egitea ere kontratatu da.

Diruzaintzan: Urtero balantze positiboak aurkezten baziren ere, benetako egoera erabat ezberdina zela antzeman da. Zegoen diru guztia gastatzen ari zen bitartean egoitzako kontuetan saldo positiboa zegoela jakinarazten zen.

Aldundiarekin egin beharreko tramiteak diru-ekarpena jaso ahal izateko: 2009ko abendutik ez zaizkio aurkeztu Aldundiari itundutako plazei dagozkien ekarpenak egiteko derrigorrezko fakturak. Tramite horiek ez zirela egin ezkutatzeko gestioak eginda zeudela eta Aldundiaren diru-ekarpena berehala jasoko zela esaten zen. Udal teknikariek egindako lanari esker faktura guztiak erregularizatzea lortu da eta Aldundiaren ekarpenak kobratzen hasi da egoitza.

Ordaindu gabeko zorrak: Kaleratze-gutuna eman zitzaionean ECLAT eta AUZO LAGUNekin gutxi gorabehera 290.000 €-ko eta 100.000 €-ko zorrak zeudela jakina zen. Zor horiek ezkutatu egin ziren, nahiz eta, -eta beharbada horretarako ahalmenik izan gabe-, administratzaileak berak zorrak aitortzeko dokumentua sinatu zuten.

Zerbitzu zerrenda ez betetzea: Ikuskaritza ikustaldien ondoren Aldundiak idazkiak bidali arren, zerbitzu zerrenda betetzeko ez zela ezer egiten ere ikusi zen ekainean. Udaleko gizarte langileek eta egoitzako langileek elkarrekin egindako lanari esker, -lan handia egin baitute arazoari irtenbide bat emateko-, Aldundiak antzemandako hutsune gehienak betetzea lortu da, eta espero da aste honetan bertan ikuskapen berri bat egitea horien betetze maila ezagutzeko. Eta alderdi horrek, hainbestekoa denik ez badu ematen ere, erabat garrantzizkoa da egoitzaren egoera ekonomikoa onbideratzeko, Aldundiaren ekarpenak egoitzaren benetako gastuarekin doitzea ahalbideratuko baitu. Egoitzaren egungo egoeraren arrazoi nagusia da gastuak diru sarrerak baino handiagoak zirela eta alde hori gutxitzeko ez zela ezer egiten.

Alkatearen iritziz, zerbitzuak gizarterako duen garrantziak erabateko gardentasuna eskatzen du eta hori ere izan da gaia zabaldu den bezala zabaltzearen arrazoia. Adierazi duenez, gai honen ondorio objektiboa izan da zorrak ordaintzeko eskatzen duten enpresa hartzekodun gehiago agertu direla. DATAVIren kasua aipatu du, 2008tik 2.000 euro zor zaizkio; RAMELena, 2009tik 3.700 bat euro zor zaizkio; LARKena, honi 7.000 bat euro zor zaizkio; langile bat aukeratu zuen enpresarena, 3.000 bat euro zor zaizkio; iturginarena, 4.000 euro zor zaizkio...

Esandakoaz gain, aurreko astean egiaztatu ahal izan zen plantilako langile baten kontratua ez zegoela INEMen erregistratuta, nahiz eta nominak kudeatzen zituen enpresak hainbat aldiz eskatu administratzaileari formalizatutako kontratuak bidaltzeko.



- Aurrekari horiek guztiak izan arren, administratzaileak erabakia errekurritu du eta kalte-ordaina ordaintzea eskatzen du.

Esandako guztiaren berri eman ondoren, Alkateak bototara jarri du berak eta Dorleta Leceta zinegotziak patronoen juntan kaleratzearen alde emandako botoaren berrespena.

Ondorengo parte hartzeak izan dira:

Eraña andreak adierazi du kaleratutako langilea bere udal taldeko zinegotzia dela, baina, horrek ez duela inolako eraginik izango emango duen botoan, botoa bera izango litzatekeelako gai horretan nahastutako pertsona besteren bat izan balitz. Aurreratu du berrespenaren aurka bozkatuko duela, bere ustez ez duelako inolako zentzurik erabakitako eta egindako zerbait berrestea. Gaineratu du ez duela arrazoirik aurkitzen egoitzako patronoen juntak bere garaian hartutako erabakia berresteko, egoitza pribatua baita gaur egun, eta beraz, ez da Udal honen eskumena neurriak hartzea, Patronatoarena berarena baizik. Adierazi du ere gustatuko litzaiokeela bilkura honetan egiten ari den hau, hau da, zinegotzi guztion berrespena eskatzea, aurretik egin izan balitz, hots, lehenago egin beharreko bilkuraren batean udalbatzarrari egoera azaltzea eta har zitezkeen neurriei buruz galdetzea. Horrelakorik ez zen egin, edo berari behintzat ez zitzaion inoiz galdetu horri buruz hartu beharreko neurriei buruz. Hala ere, jarraitu du esaten Eraña andreak, horrek ez du esan nahi egindako irregulartasunekin bat datorrenik, eta adierazi du bere garaian gai hori jorrazteko egindako batzorde batean hutsegite larritzat jotzearen alde bozkatu zuela.

Alkateak erantzun dio ez bazitzaion horren berri eman oporretan zegoelako izan zela.

Leceta jaunak ere aurka bozkatuko duela esan du, horretarako arrazoia izanik bera gauza askoren berri orain izaten ari dela eta ezin dituela "berrets".

Merino jauna kaleratze erabakiren alde agertu da, nahiz eta adierazi kaleratzea bidezkoa den edo ez epaileak erabaki beharko duela bere garaian.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Eraña andrearen eta Leceta jaunaren aurkako botoekin eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideen aldeko botoekin, Alkate jaunak eta gizarte zerbitzuetako zinegotziak patronoen juntan kaleratzearen alde emandako botoa berrestea ERABAKI DU Udalbatzarrak.

Bozketaren ondoren Alkatea jaunak Leceta jaunari eta Eraña andreari galdetu die beraien ustez administratzailea kaleratu beharko litzatekeen edo ez. Leceta jaunak "behar bada bai" erantzun du. Eraña andreak esan du ez duela erantzun behar, ez dela joko horretan sartu behar.

## **16.- GALDE-ESKEAK.**

Salaberria jaunari ongi etorria eman ondoren, Merino jaunak publikoki zoriondu du Bergarako Udala bere gain hartu duelako kaleak garbitzeko zerbitzuaren kudeaketa zuzena. Adierazi du erabaki horrekin Bergaran udal eta udalbatzar ezkertiarra ikusten duela.

Alkate jaunak erantzun dio beste jarduera batzuk ere badirela ezkerreko joera horretakoak. Horrela, esan du, aurreratzen dut abuztuan hondakinen kontsorzioaren estatutuen aldaketaren onarpena errekurritu beharko dudala eta errekurtsio hori ere Udalbatzar honek berrestu beharko duela.



Ondoren, Debagoieneko Mankomunitatea mankomunitateko herrietan aurki "atez ateko" zabor bilketa zerbitzua ezartzeko egiten ari den gestioen berri eman du.

Eraña andreak horrela eskatuta, Alkate jaunak zerbitzu horren funtzionamendua azaldu du.

**Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat ematen da bilkura arratsaldeko zortzietan. Eta nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**



### **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

No se producen.

### **2.- TOMA DE POSESIÓN DE CARGO DE CONCEJAL DE AGRUPACION ELECTORAL DE ANTEIGLESIAS.**

Dada cuenta al Pleno de la expedición de la credencial de Concejal por la Junta Electoral Central con fecha 15 de julio de 2010, a favor de D. UNAI SALABERRIA MUGICA y de que ha sido formulada la declaración de bienes patrimoniales, y de causas de posibles incompatibilidades y actividades que puedan proporcionar ingresos económicos, a los efectos de su inscripción en el correspondiente registro de intereses, tal como está previsto en el artículo 75 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, y cumplidos los trámites legales de toma de posesión del cargo de concejal, el Pleno da posesión a don Unai Salaberria Mugica de su cargo, quedando adscrito al grupo municipal de AGRUPACIÓN DE ANTEIGLESIAS DE ESKORIATZA- ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA (EEE).

### **3.- Ratificar la inclusión de asuntos dentro del orden del día.**

A falta de los preceptivos dictámenes de las comisiones informativas por falta de quórum de asistencia a las mismas, el pleno acuerda por unanimidad ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

*4.- Designación de representante del Ayuntamiento en diversos organismos.*

*7.- Propuesta de Bases y convocatoria para la concesión de subvenciones para agrupaciones y asociaciones culturales sin ánimo de lucro del municipio de Eskoriatza para los programas y actividades que desarrollarán durante el 2010.*

*8- Aprobación de precios autorizados para el curso 2010-2011 del servicio municipal de Escuela Infantil 0-3 años*

*9- Prórroga del convenio de colaboración formalizado con GARABIDE.*

### **4.- DESIGNACIÓN DE REPRESENTANTE DEL AYUNTAMIENTO EN DIVERSOS ORGANISMOS.**

De conformidad con la propuesta hecha por el Sr. Alcalde, la abstención del Sr. Pierrugues y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Nombrar a D. Unai Salaberria Mugica representante municipal en los siguientes organismos:

- DEBA GOIENeko LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA
- JAKION





El SR. Salaberría no ha participado en la votación por ser el candidato propuesto por la Alcaldía.

#### **5.- SOLICITUD DE BONIFICACIÓN CURSADA POR VECINOS DE DORLETA Nº 9 CON MOTIVO DEL ICIO DEVENGADO POR LA CONCESIÓN DE LICENCIA PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR.**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de urbanismo , el Pleno, por unanimidad , ACUERDA:

**Primero:** Reconocer una bonificación del 90% en el ICIO devengado con motivo de la licencia concedida para la instalación de un ascensor en el edificio Dorleta nº 9 , y ello porque en las obras concurren las siguientes circunstancias necesarias para acceder a dicha bonificación:

- a. La instalación del ascensor queda enmarcada dentro del edificio.
- b. No afecta a espacios públicos
- c. El desembarco de la cabina se realiza en elementos comunes del edificio y no en espacios privativos de las viviendas.

#### **6.- ACUERDO ANTE SOLICITUDES CURSADAS POR LOS ALUMNOS DE LOS CENTROS ESCOLARES DE ESKORIATZA CON MOTIVO A LA AGENDA ESCOLAR 21.**

